

## Ele2tor. Ezagutu zure hitz datu-basea

Sekula galdetu diozu zeure buruari zenbat hitz dakizkizun? Eta hitz hoietatik zein portzentaian diren euskarazkoak edo gaztelaniazkoak?

[Steven Pinker](#) irakasleak "*The Language Instinct*" liburuan iradokitzen duen bezala, ezagutzen dugun hitz kopurua gutxi gorabehera estimatzeko hiztegi bat har dezakegu, eta orrialde bakoitzeko lehen hitza ezagutzen dugun ala ez apuntatutatu. Ondoren, hiztegiaren sarrera kopuru osoaren gainean hiruko-erregla bat egin eta listo.

Noski, errore bat egongo da, eta ez soilik estimazioan. Hiztegiek sarrera-kopurua puzean dute aldaerak eta beste hainbat trikimailu sartuta. Edonola, estimazio interesgarri bat da nork bere hiztegiaren ideia bat egiteko.

Euskararen eta gaztelaniaren kasuak aztertzeke erabilera publikokoa den [Elhuyar hiztegia](#) hartu dut. Bertatik euskarazko eta gaztelaniazko sarrera guztiak deskargatu ditut (50000 bat hitz hizkuntza bakoitzean) eta [Ele2tor](#) erraminta sortu dut. Pertsona eta leku izenak ere agertzen dira bi hizkuntzetan, baina hau ere interesgarria izan daiteke.

*Ele2torrek* alirizira hiztegi euskarazko eta gaztelaniazko berrogeita hamarna hitz proposatzen ditu. Ezagutzen dituzun ala ez erantzun eta gero, guztira zenbat euskarazko eta gaztelaniazko hitz dakizkizun estimatzen du. Gainera, asmatutakoen artean, euskara-gaztelania portzentaia ematen du.

[Google Translate](#)ek euskarazko 26000 hitz soilik ezagutzen ditu *Ele2torren* arabera, baietz zuk hobeto egin! Irrikaz bazaude zeure hitz datu-basea zein den jakiteko, bost minutuko kontua da, [ekin!](#)



emetu

Ezagutzen duzu hitza?

Bai

Ez

Hitzak: 1 / 100

Eu: 0

Es: 1

Powered by [Turutarena](#)

--  
P.S.: Zenbaki bat agertzen bada hitzaren aurretik ez jaramonik egin, ezabatu ezin izan dudana adiera zenbakia da.